



**Jose Inazio Basterretxea**

◆ IDAZLEA

## Arrosak, ogirik gabe

BI MODU besterik ez omen dira zamaritik jaisteko: hura geldi dela, eta hura abioan dela. Eta politikaren dogmatismo usteletatik jaisteko ere ez dago modu gehiagorik; jaistekotan, edo astoa geldian dela egiten da, edo pausuan.

Aspaldi da bihurturik mundua –atzerrikoa nahiz etxekoa– sinismen dogmatikoen biktima –bortxazkoa batzuetan, bake sasizkoa beste inoiz–. Izen asko dauka dogmatismoak, baina, dogmatismoa da, eta segituan errekonozitzen dugu.

Bururik ez, eta txapela nahi... halatsu ibili ohi da dogmatikoa. Esklusiorik bortitzenak planteatzen ditu, delako sinismen itsu batzuen mesedetan, eta beraren ahalduntzearen alde. Dogmatismoak ekarri zuen Inkisizioa. Dogmatismoak faxismoa. Estalinismoa.

Paralizatzailea da dogmatismoa. Arrasto bertikalarekin bat ez datozen erkide konprometituen ekintzen oztopatzea ohi dakar. Irentsi ezinezko errotarriekin bazkatzea eskatzen du. Kritiko direnak estigmatizatzen ditu: Elizan, kartzelan, herriko plazan, txistulari taldean...

Ildo propioa lantzen duten lagunak berrizendatzen ditu, birdefinitzen ditu –ez jende beregainaren diskursoarekin bat datorren terminologia erabilia, baizik eta dogma barrukoarekin–; eta harrika egiten die “desbideratuei” hantustearen talaiatik.

Dogma zalea da gure inguruko asko. Handia. Herria definitzean. Herria diseinatzean. Herrigintza planteatzean. Presio-taldez bete dira bazterrak: kultura-elkartetan, udal-batzetan, legebiltzarretan... Bikoitza da dogmak eragiten duen esklabutza intelektuala:

endogenoa eta exogenoa. Bietan, izugarria.

DOM JAUNA

Atxilotu zutenean, hamazortzi urte zeuzkan Domek. Parisen giltzapetu zuen Gestapok, eta Ravensbrück lan-esparrura eramana. Preso hartu zutenean, gaztearen militantzia “desbideratu eta arriskutsua” aipatu zuten borrhorerok.

Kartzela erraldoiaren baitan, lan-esparruan bizirauteko, Dom jaunak SSen basuretara aurkitutakoa jan zuen egunetan. Hilabetetan. Urtetan.

*Bururik ez, eta txapela nahi... halatsu ibili ohi da dogmatikoa.*

*Esklusiorik bortitzenak planteatzen ditu, delako sinismen itsu batzuen mesedetan, eta beraren ahalduntzearen alde*

Nazien errendizioa etorri eta gerra bukatu zenean, aske utzi zuten libertadoreek. Gaixo eta ahul, kaleko zarama-pote batetik ikusi zuten herritarrek behin bazkatzen. Paseoan zebiltzanek “zerria” esan zioten aurpegira. Behatz erakuslearekin seinalatu zuten. Haurrei esan zien harengana ez hurbiltzeko.

Dom jaunak ez zuen ezer ulertzen. Eta bere buruari galdetu zion nola zitekeen SS eta enparauen sistemaren bizikide izan ondoren, kaletar haiek une hartan asaldatzea pobrea zaborretan janaria biltzen ikuste hutsarekin. ■



## BERTSO BERRIAK

### Hauteskundeei



DANI BLANCO

### Odei Barroso Gomila

◆  
**Doinua: Papogorriarena (Mikel Laboa).**

Esquindarrak indartsu harrotasunean, ezkertiarak beraien anaitasunean, zentristek hanka ezker nola eskuinean, abertzaleak gora unean unean... zerrenda idekien estutasunean.

Afixak paneletan, leloak hemen han... izeneri begira zifreak atzeman. Guttienez ttikiak bere barne deman badauka nori hartu eta nori eman handientzat egina izan den sisteman.

Nahiz eta jakin nori, nahiz eta jakin nun, bozka gutun-azala bihurtzen da berun. Errealitatea begira dezagun: herri ttikitara dira guziak ezagun, mahai bueltan etsai ta ostatuan lagun. ■

